

3.º Elissalde jaunak esan digu : *Euskalzaleen Bilzarak*, ikasle artean batzaldi bat eragin duela. Aurtengo onek zitu ona izan du ta ikasle oiek beren lanen gai : oianari dagozkion itzak erabili dituzte.

4.º Azkue jaunak gipuzkoako aditzari dagokion lan eder bat irakuri digu ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu batzaraldi au.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Garagarñaren 28'an.

Batzaraldian euskaltzain jaun abek daude : Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagaray, Altube, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

1.º Bikario jaunari erantzun bear-ta auxe erabaki da : Arazo ontan *politica* dabilela iñork ezin ukatu lezake : oregatik Euskaltzaindiak urutiratu bear du : gañera gaurtandik *euskal-izenen* lana, Euskaltzaindiak bere gain, ataza aundiz, artu lezake ta auxe esan bear zaio : Alegia lan au osoro burutu arte ez dala Euskaltzaindiaren erabakirik azalduko.

2.º Iztegi beñiaren lanak auñera dijoazela, bada-kigu; bañan Euskaltzaindiaren lan oren ageñaldiak bear ditugu. Euskaltzaindiak erabaki du : *Eusker*a'n azalduko ditugu orain arteko lanak, ta iztegiak bear duen *auñe-itzaldi* edo prologoa Ormaetxea jaunak idatzi beza.

3.º *Eusko-Ikaskuntzak* bere gutuntegirako euskal-itzak nai lituzke. Ona emen zerenda.

3.º Catálogo de sus publicaciones.—*Idazti-irugañen argitaldia; Idazti-aurkibidea.*

Obras generales.—*Guztitariko idaztiak*.
Ciencias sociales y Derecho.—*Gizarte ta Lege jakin-gaiak*.

Filología.—*Izkuntza*.

Etnografía.—*Erikuntza-endagaiak*.

Prehistoria.—*Edesti-auñea*.

Medicina.—*Sendakuntza, Sendagintza*.

Problemas marítimos.—*Itxaso-arazoak*.

Bellas artes.—*Antze-gaiak*.

Literatura.—*Idazt-antze, Literatura*.

Publicaciones periódicas. — *Aldizkako-agergariak, Aldirokoak*.

Ta beste gairik izan ezta, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1932'ko Ufirlaren 27'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea, Oleaga eta Belaustegigoitia Perderika. Otoitzez asi da.

1.º Euskaltzaindia biar Mezetara joago da, oitura duenez, batzaraldiroa asterakoan. Goizeko bederatziterdietan, Santiago elizan, meza auxe izango da.

2.º «Gaceta del Norte»-k euskal-atal bat darabilki: ez da bañan Euskaltzaindiaren idazkerara tajutzen. Tajutu dedila, esan bear zaio.

3.º Aita Intzak irakuñi dizkigu, Atanasio Mokoroa jaunak iru idazti sailetatik atera ditun itz berezi batzuek: idazti oiek *Juan Bautista Agiré, Kardaberaz ta frai Kristinorenak* dira.